

Euskal kulturaren auzolana AEBetan

Nevadako Unibertsitateko Euskal Ikasketen Zentroari buruzko erakusketa zabaldu dute Renon

Juan Luis Zabala

Agian, kanpotik ez da ikusten, baina, Euskal Herrian bezala, hemen ere militantzia handia dago, dio Nere Erkiaga Nevadako Unibertsitateak Renon (AEB) duen Euskal Ikasketen Zentroko Euskal Liburutegiaren arduradunak. Erkiagaren ustez, jende askok zentroaren sorreratik gaur arte egindako auzolan militantearen aitortza da Renoko Euskal Liburutegiak eta Euskal Ikasketen Zentroak Nevadako Unibertsitateko Getchell liburutegiko lehen solairuan zabaldu duten erakusketa, Building Basque Studies since 1967 (1967tik Euskal Ikasketak jorratzen).

Hasi William Douglasssek egindako lanarekin, eta haren ondotik beste jende askok arlo guztietan emandako borondatezko laguntasun itzelarekin segi, horri esker atera da zentroa aurrera, Erkiagaren ustez: liburutegira edo zentrora etortzen ziren euskaldun eta euskal jatorriko pertsona anonimoen ahalegina; Joseba Zulaikak, zuzendari zenean, hiru irakasle-ikertzaile postu izan ordez bost lanpostu izatea lortu izana; Kate Caminok dantzak irakasten eta harremanak lantzen euskal komunitatean egiten duen lana; eta beste hainbat pertsonaren abarrak.

Duela 40 urte sortu zen Nevada Unibertsitateko Basque Studies Center edo Euskal Ikasketen Zentroa, eta urteurren hori izan da erakusketa eratzeko aitzakia. Unibertsitatera begira antolatu dugu erakusketa, azaldu du Erkiagak. Batez ere, Nevadako Unibertsitateko ikasleei begira, baina baita unibertsitateko langileentzat ere. Jende askok lan egiten du hemen, eta batzuk ez du jakiten bestea zertan dabilen. Erakusketaren asmoa da zergatik eta zertarako gauden hemen azaltzea.

Argazkiz eta testuz osatutako zazpi panelek osatzen dute erakusketa. Panel bakoitzak gai bat jorratzen du, eta honako hauek dira gai horiek: Euskal Herria zer den eta euskaldunak nor diren; euskaldunen emigrazioaren motiboak; AEBetako emigrazioaren nondik norakoak; Euskal Ikasketen Zentroaren sorrera; Renoko Euskal Liburutegiaren sorrera; Renoko Euskal Liburutegiko bisitarien programa; Euskal Ikasketen Zentroaren egungo lanak eta asmoak.

Renoko Euskal Liburutegian gordetako argazkiak baliatu dituzte erakusketarako. Liburutegiko artxiboan dokumentuak eta argazkiak daude. Bai jendeak utzitako artxibo pertsonaletakoak eta bai Euskal Ikasketen Zentroan lan egindako irakasle eta ikertzaileek osatutako artxiboak ere. Eta audioak ere badaude: elkarrizketak eta horrelakoak. Erakusketan ez dago audiorik, hala ere.

Udan AEBetako hainbat euskal etxetara eramango dute Building Basque Studies since 1967 erakusketa, euskal etxe horietan egin ohi diren festibalak baliatuz.

LIBURU BAT BIDEAN

Euskal Ikasketen Zentroaren historia kontatuko duen liburua ere argitaratuko dute aurten, Nevadako Unibertsitateko Oral History Program izeneko programaren barruan. Zentroaren sorreran zein historian garrantzi handia izandako 11 laguni egindako elkarrizketak izango dira liburuaren ardatz nagusia, Pedro Oiartzabal ikertzaile eta liburuaren egileak dioenez. Elkarrizketatuen artean, William Douglass, Linda White eta Carmelo Urza daude, besteak beste. Argazkiz oparo hornitutako liburua izango da. Euskal Ikasketen Zentroa euskal ikasketen munduan ardatz baten gisakoa da, Gloria Totorikaguena Euskal Ikasketen Zentroko zuzendariaren iritziz. Mundu osoko beste unibertsitateetan euskal ikaskuntzak zabaltzen eta indartzen ari gara aurten. Stanford Unibertsitatean euskal ikaskuntzak sartu ditugu, eta euskal ikaskuntza beste unibertsitate batzuetan ere zabaltzeko asmoa dugu: Manilako Ateneo Unibertsitatean, Buenos Airesko Unibertsitatean, Australia, Alemania, Polonia, Belgikako eta Italiako unibertsitate batzuetan....

Guk ingelesez argitaratutako liburuak ditugunez, oinarritzko materiala dugu beste herri batzuetan zabaltzeko, azaldu du Totorikaguenak, mundu osoko herri askotako unibertsitateetan ingelesa erabiltzen baitute hezkuntza arloko bigarren edo hirugarren hizkuntza gisa. Ez dago gorpila berriro asmatu beharrik, eta dagoeneko eginga dagoen oinarritzko material hori erabil daiteke euskal ikasketak munduan zabaltzeko. Unibertsitateei informazioa eta gure liburuak bidaltzen dizkiegu, eta gure ikasketen programen aurkezpenak egiten ditugu. Esaterako, ni asteazkenero joaten naiz Stanford Unibertsitatera, eta Filipinetara udazkenean joango naiz, ez irakasle gisa, ikasketak aurkeztera baizik.